

GOBIERNO DE NAVARRA
PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR
ECONOMIA Y HACIENDA
RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO
ADMINISTRACION LOCAL
EDUCACION
SALUD
DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTE
ASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONES
VIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO
INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO
SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Madriren aurkeztu dute Erriberriko Antzerki Klasikoko XII. Jaialdiko programazioa

Jaialdian 45 antzezpen eskainiko dituzte, uztailaren 15etik 31ra

Miércoles, 08 de junio de 2011

Kultura eta Turismoko jarduneko kontseilari Juan Ramón Corpas Mauleonek eta Álex Ruiz Pastor Erriberriko Antzerki Klasikoko Jaialdiko zuzendari artistikoak Madriren aurkeztu dute gaur goizean hamabigarren jaialdirako programazioa. Uztailaren 15etik 31ra izango da eta 45 antzezpen eskainiko dituzte. Ekitaldia Madrilgo Lázaro Galdiano museoa izan da.



Rafael Álvarez, Corpas kontseilaria, Helena Pimenta, Pilar García Granero eta Alex Ruiz Pastor

Madriren estatuko hedabideentzat egin duten aurkezpenean programak diseinatu duen leku edo ingurune bat eszenaratu dute: "Pertsonaiaren ardoa". Antzerki zuzendari bat, enologo bat, pertsonaia bat eta ardo bat bateratu dira gogoeta egiteko. Horren bidez, antzerkiko pertsonaia bat (Shakespearearen Macbeth kasu honetan) eta Nafarroako ardo bat lotzen dira.

UR Teatro-Antzerkia konpainiaren sortzaile Helena Pimentak esan duenez, "Macbeth zital bihurtutako heroia da, eta neurritz kanpoko anbizioak bideratzen ditu haren goraldiak eta erorialdiak. Bizitzeak dakarren ziurgabetasunaren aurkako ibilbide eroan, Macbethek bere burua eta ingurukoak suntsitzeaz gain, gizakia egunero zutik jartzera bultzatzen duen ilusioa ere desegiten du. Shakespearek irekitzen digun leihotik ikus dezakegu nola funtzionatzen duten gaizkiaren mekanismoek eta giroak, emozioak eta sentimenduak kontrastatuz geure ondorioak ateratzea du xede".

Pertsonaia horrentzat aukeratu den ardoa Domaines Lupier upategiko Terroir 2008 izan da. Pilar García Granero Nafarroa Jatorrizko Deituraren presidenteak zuzendu du ardo-dastatzea. García Granerok adierazi duenaren arabera, "mahasti zaharretako garnatxekin egin da ardoa. XIX. mendearen amaierako eta XX. mendearen hasierako filoxera izurriaren ondoren, mahats mota hori mahats erregina, heroia izan zen, eta horri esker Nafarroako mahastiak leheneratu ziren. Hala eta guztiz ere,

Macbethen antzera, laurogeita hamarreko hamarkadan, zitaltzat jo zen, ordura arte izan zuen interes guztia galdu zuen mahats iraindutzat. Pertsonaiak ez bezala, Terroir ardoak erakusten du mahats mota hori berrerosi eta aldarrikatu egin dela, eta istorioaren amaiera zoriontsua izan dela. Gaur egun, garnatxak sektoreko profesionalen eta hedabideen lilura eragiten du berriz ere".

Domaines Lupier upategia duela gutxi zabaldu dute eta San Martin Unxen dago. Tradizioz askotariko mahatsak ekoiztu izan dituzte. Upategian garnatxa motako mahasti zaharren 21 partzela dituzte, hainbat lur mota, norabide eta altueratan jarrita. Domaines Lupiesen abenturaren helburua "bertako mahats motaren ospea berreskuratu eta itzultzea da, Nafarroa Jatorrizko Deituraren nortasunaren ezaugarrietako bat delako".